

**I. ONKOLOGIAKO  
SEKTORE ARTEKO  
EKINTZA.**

**INGURUNE  
OSASUNGARRIEN  
SUSTAPENA ETA  
BIZTANLERIA  
DIAGNOSTIKO  
GOIZTIARREKO  
PROGRAMAK**

Euskadiko Osasun Plana hedatzean, minbiziarekin lotzen diren osasuna sustatzeko jardunak bultzatu dira. Jardun horiek osasun-sektorearen ekintza-esparrua gainditzen dute eta sektore arteko ekintza bateratuaren mende daude; ildo horretatik definitu dira gaur egun zenbait jardun-esparrutan —hedapen handiagoarekin edo txikiagoarekin— lantzen ari diren ekimenak.<sup>17, 18,19</sup>

Minbizien % 30 inguru saihesgarriak dira. Izatez, Minbiziaren Aurkako Europako Kodearen gomendioei jarraituta (4. **eranskina**), Osasun Sailak minbizian eta beste gaixotasun batzuen garapenean eragin handia duten arrisku-faktoreak aztertu ditu (tabakoa, alkohola, elikadura, jarduera fisikorik eza...). Osasunaren sustapenean lan egiten ari da, jarrera pertsonalei dagokienez zein lan- eta bizi-baldintza atseginak, seguruak eta estimulagarriak sortzen dituzten inguruneei dagokienez.

Jardun horiek sektore arteko ikusmolde zabaletik konfiguratzen dira, eta horrek Eusko Jaurlaritzaren beste sail batzuekin, Euskadiko beste erakunde batzuekin, foru- eta udal-administrazioekin eta erkidegoan dauden beste eragile batzuekin batera lan egitea ekarriko du.

Onkologia Planaren ikuspegitik, eutsi beharko zaie bizi-ohitura osasungarriak sustatzearen arloan egiten ari diren ekimenei, baita toki-mailan erkidego-ekintza bultzatzeko eta sendotzeko egiten ari diren ekimenei ere. Onkologia Planak esplizituki hartzen ditu bere gain esku-hartze horien helburuak. Laburbilduta hauek dira helburu horiek:

3. HELBURUA.- Biztanleriaren artean jarduera fisikoa sustatzea, Euskadiko Jarduera Fisikoaren Planean definitutako jarraibideei eta estrategiaei jarraituz.<sup>20</sup>

4. HELBURUA.- Elikadura osasungarriko ekimenen estrategia ezartzea Euskadiko biztanleriarentzat, kontsumo-ereduetan gizarte- eta genero-desberdintasunak kontuan izanik.<sup>21</sup>

5. HELBURUA.- Tabakoaren kontsumoaren prebalentzia murriztea eta Euskadiko biztanleria tabakoaren keaz babestea, Tabako Kerik Gabeko Euskadi estrategian aurreikusten diren neurrien bitartez.<sup>22, 23</sup>

6. HELBURUA.- Alkoholen kontsumoaren prebalentzia murriztea eta, horretarako, hasierako adina atzeratzea eta gazteen artean arriskuko kontsumoak eta horien maiztasuna murriztea.

Modu berean, Onkologia Planak bere egiten ditu helburu hauek bilatzen dituzten erradiazio ionizatzaileen ondoriozko arriskuak murrizteko jardunak:

7. HELBURUA.- Erradiazio ionizatzailea erabiltzen duten diagnosi-proben preskripzioa optimizatzeke ekintzak sustatzea.

8. HELBURUA.- Erradiazio ionizatzailea erabiltzen duten probak egiteko protokolo espezifiko adostuen aplikazioa sustatzea erakundearen osotasunean, aldakortasuna murrizteko.

9. HELBURUA.- Historial dosimetrikoari esker, metatutako datuak ustiatzea, beharrezkoak diren erradiazio-dosiak eraginkortasunez doitzeko helburuarekin.

Gaur egun Euskadin ezartzen ari diren helburu eta ekintza horiei aurreko jardunak osatzen dituzten bi estrategia erantsi behar zaizkie, herritarrei bizi-ingurune osasun-garriak eskaintzea helburu baitute. Lan-inguruneko eta melanomaren prebentzioko jardunak dira.

## MELANOMA

Melanomaren eraginak gora egin du Euskadin minbizia duten biztanleen erregistroa egiten hasi denetik. 1986-2006 aldian, ikusi zen urtean % 5,2 hazi zela gizonen artean eta % 3,8 emakumeen artean (azken horietan dira tasarik handienak). Modu adierazgarrian ez bada ere, gorako joerak jarraitzen du, batik bat gizonen artean. Horrenbestez, prebentzioa garrantzi handikoa da, eta, batez ere, haurtzaroan eta gaztaroan eguzkiaz babestea.<sup>26</sup>

10. HELBURUA.- Biztanleriari eguzkiarekiko esposizioaren arriskuaz ohartarazteko ekintzak gehitzea, eta eguzki-erradiazioak epe laburrera eta luzera sortzen dituen kalteak saihesteko hartu beharreko prekauzioen berri emateko ekintza gehiago egitea.

Helburu horren ildotik, Onkologia Planak kanpainak egingo ditu minbiziaren aurkako Europako kodearen berri emateko eta kodea hedatzeko. Haurtzaroan eta gaztaroan prebentzioa garrantzi handikoa dela abiapuntu izanik, pediatriako asistentzia-dispositiboek informazioa ematea bultzatuko da.

42

## LAN INGURUNEA

Minbizia laneko gaixotasuntzat jotzeko kausen artean dago lan-ingurunean agente kartzinogenoekiko esposizioan izatea. Minbizia Ikerketzeko Nazioarteko Agentziak askotariko agenteekin eta esposizio-baldintzekin egindako kartzinogenizitatearen ebaluazioak abiapuntu izanik, agente horietako batzuk laneko kartzinogeno gisa identifikatu dira. Zenbait azterketatan oinarrituta, kalkulatu da minbizi guztien % 5 inguru lan-bizitzan kartzinogenoekiko esposizioan izatearen emaitza izan direla.<sup>28, 29.</sup>

Euskal Autonomia Erkidegoan kalkulatu zen 2012an 308 gizon eta 49 emakume hil zela lan-jarduerarekin lotzen diren minbizien ondorioz. Urte horretan bertan, gizonen artean beste 645 minbizi-kasu eta emakumeen artean beste 124 minbizi-kasu diagnostikatu zen laneko esposizioarekin lotuta. Laneko tumorerik ohikoenak biriketako minbizia, prostatakkoa, kolonekoa eta maskurikoa izan ziren. Minbizi mota bakoitzarekin lotzen diren kartzinogenoei dagokienez, amiantoa eta silizea dira ohikoenak biriketako minbizian (beste batzuek maiztasun txikiagoa dute) eta olio mineralak eta diesel-keen emisioak maskuriko minbizian.<sup>30</sup>

Onkologia Plan honek lan-ingurunean agente kartzinogenoekiko esposizioa murrizteko ekintzak planteatzen ditu, baita lanean jatorria duten minbiziei buruzko informazioa hobetzeko eta laneko jatorria duten minbizi batzuk goiz detektatzeko ekintzak ere.

11. HELBURUA.- Laneko minbiziari eta lan-inguruneko kartzinogenoei buruzko informazio-sistema hobetzea.

Helburu hori lortzeko, ekintza hauek izango dute lehentasuna:

- Lan-ingurunearekin lotuta egoteko probabilitate handia duen minbiziaren zainketa epidemiologikorako plana hedatzea (hasi da tumore mesoteliometarako, angiosarkoma hepatikoetarako eta sinu paranasalen adenokartzinometarako).
- Lanean jatorria izan dezaketen gaixotasunen komunikazio-sisteman aurrera egitea, baita prebentzio-zerbitzuaren gutxieneko datu batzuk izango dituen informazio-sistema batean ere.
- Amiantoarekiko esposizioan egon ahal izan diren langileei zuzendutako informazio-sistema mantentzea eta hobetzea, esposizio horrek osasunean duen eraginaren berri emateko.

12. HELBURUA.- Lanean agente kartzinogenoekiko esposizioa murriztea, metal-galdaketaren sektoreko enpresetan silizearekiko eta formaldehidoarekiko esposizioa kontrolatuz.

13. HELBURUA.- Arrisku handiko biztanleen artean laneko minbiziaren detekzio goiztiarra hobetzea eta, horretarako, laneko zenbait kartzinogenoekiko esposizioarekin lotzen diren minbiziak goiz detektatzeko zainketa-gidak garatzea.

14. HELBURUA.- Laneko minbiziari buruzko ezagutzetan prestatzea eta sensibilizatzea, ezagutza horiek hedatzea, eta, batik bat, prebentzio-zerbitzuetako medikuei prestakuntza berezia eskaintzea, laneko biztanleriaren osasuna zaintzeko gidak aplikatzera begira.

43

## BAHEKETA PROGRAMAK

Prozesu onkologikoaren funtsezko alderdietako bat diagnostiko goiztiarra da. Horrek aukera emango du tratamenduei gaixotasunaren fase goiztiarretan hasiera emateko eta, hartara, biziraupen-emitza hobeak lortu ahal izateko. Hori dela eta, Plan honetan proposatu da Euskal Autonomia Erkidegoko baheketa-programetan hobekuntzak sartzea eta zerbixeko minbiziaren baheketa-programa hedatzea.<sup>31,32</sup>

15. HELBURUA.- Ezarritako baheketa-programen (bularreko minbizia eta kolon eta ondesteko minbizia) hobekuntzan aurrera egitea eta zerbixeko minbiziaren biztanleria-baheketarako programa hedatzea.

16. HELBURUA.- 35 eta 49 urte arteko emakumeen artean baheketa-estrategiak hedatzea, familia-arriskuko kategorien eta adin-tarteen arabera eta indarrean dauden gomendioetan eta ebidentzietan oinarrituta.<sup>8,9</sup>

17. HELBURUA.- Kolon eta ondesteko minbiziaren baheketa-programaren mende dagoen biztanleriari bi urtean behin programara gonbidatzen zaiola bermatzea; horretarako, erakundeen ahalmenak egokituko dira, programa eraginkortasunez hedatzeko.

18. HELBURUA.- Zerbixeko minbiziaren baheketa-programa ezartzea, gaur egungo baheketa oportunita biztanleria-baheketa bihurtuz. Programa horren hedapena Euskadiren osotasunera zabaldu beharko da 2020. urtearen amaierarako. Horretarako, 2018ko lehen sei hilekoan emango zaio hasiera ezarpenari, eta, 2020rako, pixkanaka hedatuko da programa ESI guztietara.

19. HELBURUA.- Hiru baheketa programen gaur egungo estaldura-tasa efektiboak gehitzea, 2020. urterako xede-populazio teorikoaren % 90era, gutxienez, iristeko.